

BIZKAIKO FORU ALDUNDIAREN FORU DEKRETUA, zeinaren bidez onartzen baitira 2024rako dirulaguntza foralen oinarri arautzaileak eta deialdia, Bizkaiko entitate lokalek sustaturiko herri-eta gizarte-partaidetzarako proiektuetarako.

Herritarren partaidetza, hartarako gaitzen diren modu eta prozedurak garatuz, dauden bideetarako bat da herritarrek beren ekarpena egin dezaten zehazteko zer politika publiko nahi diren eta nola gauzatu nahiz gestionatu daitezkeen politika horiek.

2020ko azaroaren 10ean, Herritarren eta Gizartearen Partaidetzarako 2020-2023 Foru Plana onartu zuen Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak, bai eta hura prestatzeko eginiko partaidetza-prozesuaren memoria ere.

2020-2023 aldirako Herritarren eta Gizartearen Partaidetzarako Foru Plan horrek beste bultzada bat eman nahi dio Bizkaiko Foru Aldundiak partaidetzarekin duen konpromisoari. Bizkaian partaidetza handiagoa eta hobe sustatzera eta erraztera bideratutako 14 jarduera biltzen ditu planak. Pertsona guztiengana iritsiko den partaidetza bat, zeina lortuko baita parte-hartzeko espazioak eta tresnak gure Lurralde Historikoko talde, kolektibo, eskualde eta udalerrietara hurbilduz. Helburutzat harturik beti partaidetza tresna dinamizatzailea izatea, konponbide, adostasun eta lankidetzak berriak ekarriko dituen Bizkaiko garapen iraunkorrean aurrera egin ahal izateko. Helburu hori guztiz bat dator Nazio Batuen 2030 Agendan ezarritako helburuekin eta haren Garapen Jasangarrirako 17 Helburuekin.

Gizartearen eta Herritarren Partaidetzarako 2020-2023 Foru Planaren helburu estrategikoetarako bat da babes sendoagoa ematea Bizkaiko Foru Aldundiak Bizkaiko entitate lokalek sustatutako herritarren partaidetzarako jardueri. Gizartearen eta Herritarren Partaidetzarako Foru Planaren ikuspegia eta helburu

DECRETO FORAL DE LA DIPUTACIÓN FORAL DE BIZKAIA, por el que se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones forales destinadas a proyectos de participación ciudadana y social promovidos por entidades locales de Bizkaia para el año 2024.

La participación ciudadana, a través del desarrollo de las distintas formas y procedimientos que se habiliten a tal efecto, es uno de los cauces que facilitan la contribución de la ciudadanía a la determinación de las políticas públicas y a las formas en las que esas políticas se ejecutan o se gestionan.

El 10 de noviembre de 2020, el Consejo de Gobierno de la Diputación Foral de Bizkaia aprobó el Plan Foral de Participación Ciudadana y Social 2020-2023, así como la memoria del proceso de participación llevado a cabo para su elaboración.

Este Plan Foral de Participación Ciudadana y Social 2020-2023 pretende dar un impulso más al compromiso de la Diputación Foral de Bizkaia con la participación. El Plan recoge 14 actuaciones orientadas a promover y propiciar más y mejor participación en Bizkaia. Una participación que llegue a todas las personas, acercando los espacios e instrumentos de participación a los diferentes grupos, colectivos, comarcas y municipios de nuestro Territorio Histórico. Siempre con el objetivo final de que la participación sea un instrumento dinamizador que aporte nuevas soluciones, nuevos consensos y nuevas colaboraciones para avanzar en el desarrollo sostenible de Bizkaia. Un objetivo plenamente alineado con las metas establecidas en la Agenda 2030 de Naciones Unidas y sus 17 Objetivos de Desarrollo Sostenible.

Uno de los objetivos estratégicos del Plan Foral de Participación Ciudadana y Social 2020-2023 es reforzar el apoyo de la Diputación Foral de Bizkaia a las actividades de participación ciudadana impulsadas por las entidades locales de Bizkaia. La visión y objetivos estratégicos del Plan Foral de Participación





estrategikoak lau jarduera-ildoren bidez hedatzen dira: Bizkaiko Foru Aldundiaren politikak, programak eta zerbitzuak prestatzen, haien jarraipena egiten eta ebaluatzen parte hartzearen aldeko apustua areagotzea; Bizkaia-aren garapen jasangarrirako funtsezko tresna gisa ulerturik parte-hartzea sustatzeko ezagutza-proiektu eta -espazioetan aktiboki parte hartzea eta halakoak sustatzea; Zabalkunderako ekintzak egitea herritarrek eta gure lurraldeko eragileek eskurago izan ditzaten Bizkaiko Foru Aldundiak sustaturiko partaidetzazko guneak, kanalak eta prozesuak, eta Bizkaiko udal eta mankomunitateetako parte hartzea errazteko laguntza-tresnak sendotzea. Azken horren ildo beretik doa dekretu honen helburua, laguntza-zerbitzu berriak abian jartzea baitu helburu, horrela partaidetza, Bizkaiko eskualdeetan eta udalerrietan finkatutako errealitatea izateaz gainera, haiei ahalik eta baliorik handiena emango dien tresna izan dadin.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundearen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 17.2. artikuluan xedatutakoaren arabera, Foru Aldundiari dagokio araubide erkideko aldundietan Osoko Bilkurari eta Gobernu Kontseiluari dagozkien gaiak aztertzea eta ebaztea, betiere, Batzar Nagusien eskumenak alde batera utzita.

Titulu honen bidez onartzen diren eskumenen artean, aipatu behar da Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 36.2.b) artikulua, 36.1.b) artikuluekin bat eginez, zeinaren bidez Bizkaiko Foru Aldundiari dagokio hurrengoak: "Udalerriaren eskumeneko gutxieneko zerbitzu multzoak baliatzeko aukera ziurtatu behar die probintziako biztanleei, baita zerbitzu horiek betetzerakoan eraginkortasun eta ekonomiarik handiena izatea ere, udalerriei laguntza emateko eta udalerriekin lankidetzazko aritzeko edozein formula erabiliz. Helburu horrekin, plan berezietan zein bestelako berriazko tresnez baliatuz egituratutako

Ciudadana y Social se despliegan a través de cuatro líneas de actuación: Intensificación de la apuesta por la participación en la elaboración, seguimiento y evaluación de las políticas, programas y servicios de la Diputación Foral de Bizkaia; Promoción y participación activa en proyectos y espacios de conocimiento para potenciar la participación como instrumento esencial para el desarrollo sostenible de Bizkaia; Acciones encaminadas a la difusión para favorecer el acceso de la ciudadanía y los agentes del territorio a los espacios, canales y procesos participativos impulsados por la Diputación Foral de Bizkaia; y Potenciación de los instrumentos de apoyo para favorecer la participación desde los ayuntamientos y mancomunidades de Bizkaia. Es en torno a esta última, donde descansa el objetivo de este decreto, buscando poner en marcha nuevos servicios de apoyo para que la participación, además de ser una realidad consolidada en las comarcas y municipios de Bizkaia, sea un instrumento que aporte el máximo valor a las mismas.

De conformidad con el artículo 17 2º de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, corresponde a la Diputación Foral, entre otras, el conocimiento y resolución de aquellos asuntos que en las Diputaciones de régimen común corresponden al Pleno y a la Comisión de Gobierno, a salvo siempre de las competencias de las Juntas Generales.

Entre las competencias que se asumen a través de este título, debe mencionarse el artículo 36.2.b), en relación al 36.1.b), de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases de Régimen Local, en virtud del cual, a la Diputación Foral de Bizkaia le corresponde "Asegurar el acceso de la población de la Provincia al conjunto de los servicios mínimos de competencia municipal y a la mayor eficacia y economía en la prestación de estos mediante cualesquiera fórmulas de asistencia y cooperación municipal. Con esta finalidad, las Diputaciones o entidades equivalentes podrán otorgar subvenciones y ayudas con cargo a sus recursos propios para la realización y el mantenimiento de





dirulaguntzak eta laguntzak eman ahal izango dituzte Diputazioek beren funtsen kontura, udalerrietako obra eta zerbitzuak egiteko eta mantentzeko”.

Entitate lokalak dira herritarrengandik hurbilen dagoen administrazioa, eta arazoak eta konponbideak partekatzeke agertoki aproposa dira. Hala, bada, dekretu hau bat dator Euskadiko Toki Erakundeei buruzko 2016ko apirilaren 7ko 2/2016 Legearekin, zeinak udal-eskumeneko gaiak arautzen ditu, eta bere 67.2 artikuluan ezartzen *herritar guztiek dutela politika publikoetan parte hartzeko eskubidea. Hartarako, erakundeek eskubide hori bermatuko dute eta baliabideak jarriko dituzte hura gauzatzeko*. Era berean, lege horrek VI. kapituluaren hartzeko herritarren parte-hartzearen gai garrantzitsuari, eta herritarren partaidetzarako tresnetan sakontzen du, Euskadiko entitate lokalen esparruan gobernu ona finkatzeko. Araudi horrek herritarren benetako parte-hartzea sustatu nahi du tokiko politika publikoak bultzatu, diseinatu, landu, gauzatu eta ebaluatzeko sisteman, betiere honako hauek abiapuntutzat hartuta: herritarren parte hartzeko eskubidea indartzea eta partizipazio deliberatiboko prozesuak eraikitzea – partizipazio deliberatiboko erabakiaren bitartez –, eta ordenantzak sustatu, landu eta onesteko prozesuetan eta udal-aurrekontuetan gastu publikoaren konpromisoa identifikatzeko prozesuetan parte hartzea antolatzea.

Araudi hau izapidetzean, erregulazio onaren printzipioekin bat jardun da, kontuan harturik zer ezartzen den horri buruz Bizkaiko Foru Aldundian xedapen orokorrak egiteko prozedura arautzen duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2021eko ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 3. artikuluan eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen 2015eko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 129. artikuluan, non antzeko printzipio orokorrak arautzen baitira.

Dekretu hau jasota dago 2024rako Urteko Araugintza Planean (Bizkaiko Foru Aldundiko Gobernu Kontseiluak 2023ko abenduan onartuko du). Dekretu

obras y servicios municipales, que se instrumentarán a través de planes especiales u otros instrumentos específicos.”

La entidad local es la administración más cercana a la ciudadanía y ofrece el escenario idóneo para la puesta en común de los problemas y las soluciones. Así, este decreto está alineado con la Ley 2/2016 de 7 de abril de Instituciones Locales de Euskadi, que regula las materias de competencia municipal y establece en su artículo 67.2 que *todo ciudadano o ciudadana tendrá derecho a participar en las políticas públicas. A tal fin, las instituciones garantizarán este derecho y dispondrán medios para su ejercicio*. Asimismo, la ley dedica el capítulo VI a abordar la importante materia de la participación ciudadana, profundizando en los instrumentos de participación ciudadana en clave de asentar el buen gobierno en el ámbito local en Euskadi. Es una normativa, que pretende impulsar la efectiva participación ciudadana en la iniciativa, diseño, elaboración, ejecución y evaluación de políticas públicas locales, partiendo del refuerzo del derecho de participación ciudadana y de una construcción de los procesos de participación deliberativa a través de los acuerdos de deliberación participativa, así como de la vertebración de la participación en los procesos de impulso, elaboración y aprobación de ordenanzas y en la identificación de compromisos de gasto público en los presupuestos municipales.

En la tramitación de esta normativa se actúa de acuerdo con los principios de buena regulación, establecidos en el artículo 3 del Decreto Foral del Diputación Foral de Bizkaia 87/2021, de 15 de junio por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general y en el artículo 129 de la Ley 39/2015 de 1 de octubre, de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, que aborda iguales principios de carácter general.

El presente decreto se encuentra contemplado en el Plan Anual Normativo para el año 2024, que será aprobado por el Consejo de Gobierno de la Diputación





hau salbuetsita dago ekainaren 15eko 87/2021 Foru Dekretuaren 26.1 a) artikuluan ezarritakoaren arabera kontsulta publikoaren eta entzunaldi eta jendaurreko informazioaren izapideak.

Era berean, jasotzen du genero-ikuspegia, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako 2018ko ekainaren 20ko 4/2018 Foru Arauan ezarritakoarekin bat. Horrez gainera, kontuan hartu da zer xedatzen den 4/2018 Foru Arauaren 25. artikuluan eta Bizkaiko Foru Aldundiaren 2013ko azaroaren 19ko 141/2013 Foru Dekretuan, non jasotzen baitira genero-inpaktuari buruzko aurretiazko ebaluazioa egiteko jarraibideak; ebaluazio hori, Emakumeen eta Gizonen berdintasunerako eta Emakumeen aurkako Indarkeria Matxistarik gabe Bizitzeko Legearen testu bategina onartzen duen 2023ko martxoaren 16ko 1/2023 Legegintzako Dekretuak aurreikusten du. Ildo horretan, honen tramitazioan «Generoaren eraginaren aurretiazko ebaluazioari buruzko txostena» gehitu da, foru-dekretu horren 2. artikuluan aipatzen dena.

Foru-dekretu hau prestatzeko eta tramitatzeko, Bizkaiko Foru Aldundiaren 87/2021 Foru Dekretuan ezarritako izapideak bete dira eta nahitaezko txostenak eman: genero-inpaktuari buruzkoa, kontrol ekonomikoarena eta juridikoak.

Ildo beretik, dekretua prestatzeko, kontuan hartu da zer xedatzen den 2019ko maiatzaren 28ko 63/2019 Foru Dekretuan, zeinaren bidez ezartzen baitira Bizkaiko Foru Aldundiaren jardun-eremuan hizkuntza ofizialak erabiltzeko irizpideak.

Dekretu hau egitean, gainera, neurri sozial batzuk ezarri dira, kontuan harturik zer ezartzen duen 2018ko otsailaren 27ko 16/2018 Foru Dekretuak, zeinaren bidez, batetik, aldatzen baita Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010

Foral de Bizkaia en el mes de diciembre de 2023. Este decreto está exento de la realización de los trámites de Consulta pública y Audiencia e Información Pública de acuerdo con lo establecido en el artículo 26.1 a) del Decreto Foral 87/2021 de 15 de junio.

Asimismo, incorpora la perspectiva de género tal y como se señala en la Norma Foral 4/2018, de 20 de junio, para la Igualdad de Mujeres y Hombres. Además, se ha tenido en cuenta lo dispuesto en el artículo 25 de la Norma Foral 4/2018 para la Igualdad de Mujeres y Hombres y en el Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 141/2013, de 19 de noviembre, por el que se fijan las Directrices en las que se recogen las pautas a seguir para la realización de la evaluación previa de impacto en función del género prevista en el Decreto Legislativo 1/2023, de 16 de marzo, por el que se aprueba el texto refundido de la Ley para la Igualdad de Mujeres y Hombres y Vidas Libres de Violencia Machista contra las Mujeres. En este sentido, en su tramitación se incorpora el "Informe de Evaluación Previa del Impacto en Función de Género" al que hace referencia el artículo 2 del citado decreto foral.

En la elaboración y tramitación del presente Decreto Foral se han seguido los trámites marcados en el Decreto Foral 87/2021 por el que se regula el procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general emitiéndose los preceptivos informes de Impacto de Género, de Control Económico y jurídicos correspondientes.

En el mismo sentido se ha tenido en cuenta en la elaboración del decreto lo dispuesto en el Decreto Foral 63/2019 de 18 de mayo que establece los criterios de uso de las distintas lenguas oficiales en el ámbito de actuación de la Diputación Foral de Bizkaia.

En el desarrollo del presente decreto se han establecido, además, medidas sociales en relación a lo determinado en el Decreto Foral 16/2018, de 17 de febrero, que modifica el Reglamento de Subvenciones, de desarrollo de la Norma Foral 5/2005, de 31 de





Foru Dekretuaren bidez onartutako Dirulaguntzen Erregelamendua, Foru Administrazioak emaniko dirulaguntzen araubide juridiko orokorra arautzen duen 2005eko maiatzaren 31ko 5/2005 Foru Araua garatzen duena, eta, bestetik, onartzen baita Bizkaiko Foru Aldundiaren dirulaguntzetarako prozeduretan klausula sozialak, ingurumenekoak eta beste politika publiko batzuei buruzkoak sartzeko gida.

Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Erakundeen Hautapen, Antolaketa, Araubide eta Jardunbideari buruzko 1987ko otsailaren 13ko 3/1987 Foru Arauaren 39.k) artikulua ezartzen du foru-diputatuen eskumena dela, besteak beste, Foru Aldundiari proposamenak aurkeztea haien sailetakoa gaiei buruzko foru-dekretuen proiektuak onets ditzan. Bestalde, Dirulaguntzei buruzko Foru Arauaren 16.1 artikulua ahalmena ematen dio Bizkaiko Foru Aldundiari dirulaguntzak emateko oinarriak onesteko. Eta, azkenik, Dirulaguntzen Erregelamendua onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren 2010eko martxoaren 23ko 34/2010 Foru Dekretuaren 41.1 artikulua aukera ematen du batera izapidetzeko dirulaguntzen oinarri arautzaileak eta deialdia, eta ezartzen du Gobernu Kontseiluari dagokiola halakoak onestea, egintza bakarrean.

Azaldutako guztiagatik, aintzat harturik zer funtzio esleitzen dizkieten Gobernamentu Onaren, Herritarrenganako Laguntzaren eta Zerbitzu Digitalen Zuzendaritza Nagusiari partaidetzaren eremuan hala Ahaldu Nagusiaren 2023ko ekainaren 6ko 2023/169 Foru Dekretuak, ondoren, Bizkaiko Foru Aldundiaren 2023ko uztailaren 7ko Foru Erabakiaren bidez balioetsia (gai-zerrendako 4. gaia), aipatu dekretuaren xedapen gehigarri bakarrean ezarritakoa betez,

Horrenbestez, Herri Administrazioarako eta Erakunde Harremanetarako foru-diputatuaren ekimenez, eta Bizkaiko Foru Aldundiak bileran aztertu ondoren, honako hau

mayo, por el que se regula el Régimen Jurídico General de las Subvenciones otorgadas por la Administración Foral, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 34/2010, de 23 de marzo, y aprueba la guía para la inclusión de cláusulas sociales, medioambientales y relativas a otras políticas públicas en los procedimientos de subvenciones de la Diputación Foral de Bizkaia.

El artículo 39.k) de la Norma Foral 3/1987, de 13 de febrero, sobre Elección, Organización, Régimen y Funcionamiento de las Instituciones Forales del Territorio Histórico de Bizkaia, señala que compete a los diputados/as forales proponer a la Diputación Foral, para su aprobación, los proyectos de Decreto Foral en las materias propias de su departamento; el artículo 16.1 de la Norma Foral de Subvenciones habilita a la Diputación Foral de Bizkaia para aprobar las bases reguladoras de la concesión de subvenciones y el artículo 41.1 del Decreto Foral 34/2010 de la Diputación Foral de Bizkaia de 23 de marzo por el que se aprueba el Reglamento de la Norma Foral de Subvenciones, establece la posibilidad de la tramitación conjunta de las bases reguladoras y la convocatoria de subvenciones, correspondiendo al Consejo de Gobierno su aprobación en un solo acto.

Por todo lo expuesto, en desarrollo y cumplimiento de las funciones atribuidas en el ámbito de la participación a la Dirección General de Buen Gobierno, Atención Ciudadana y Servicios Digitales por el Decreto Foral 169/2023 de 6 de julio de la Diputada General por el que se establecen los departamentos de la Diputación Foral de Bizkaia y sus áreas de actuación y funciones, convalidado posteriormente mediante Acuerdo Foral de la Diputación Foral de Bizkaia (Asunto 4, de OD) de fecha 7 de julio de 2023,

En su virtud, a iniciativa del Diputado Foral del Administración Pública y Relaciones Institucionales, y previa deliberación de la Diputación Foral de Bizkaia,





XEDATZEN DUT:

DISPONGO:

Artikulu bakarra. *Oinarri arautzaileak eta deialdia onartzea.*

Artículo Único. *Aprobación de bases reguladoras y convocatoria.*

Onartzen dira Bizkaiko entitate lokalek 2024an sustatutako herri- eta gizarte-partaidetzarako proiektuetarako dirulaguntza foralen oinarri arautzaileak eta deialdia, eta jarraian jasotzen da deialdiaren eta oinarrien testua.

Se aprueban las bases reguladoras y la convocatoria de las subvenciones forales destinadas a proyectos de participación ciudadana y social promovidos por entidades locales de Bizkaia durante el año 2024, cuyo texto se incluye a continuación.

AURKIBIDEA / ÍNDICE

I. TITULUA. XEDEA ETA DEFINIZIOAK / TÍTULO I. OBJETO Y DEFINICIONES.

1. oinarria. Dekretuaren xedea/Base 1. Objeto del decreto.
2. oinarria. Aurrekontu-zuzkidura/Base 2. Dotación presupuestaria

II. TITULUA. JARDUKETA-ARLOAK / TÍTULO II. ÁREAS DE ACTUACIÓN.

I. KAPITULUA. 1. ARLOA: HERRI- ETA GIZARTE-PARTAIDETZAKO PROZESUAK GARATZEA PROIEKTUAN SARTURIKO UDALERRIAREN ETA/EDO MANKOMUNITATEAREN GARAPEN JASANGARRIRAKO GARRANTZITSUAK DIREN EREMUETAN /

CAPÍTULO I. ÁREA 1: DESARROLLO DE PROCESOS DE PARTICIPACIÓN CIUDADANA Y SOCIAL RELEVANTES PARA EL DESARROLLO SOSTENIBLE DEL MUNICIPIO Y/O MANCOMUNIDAD INCLUIDOS EN EL PROYECTO.

3. oinarria. Helburuak/Base 3. Objetivos.
4. oinarria. Erakunde onuradunak/ Base 4. Entidades beneficiarias.
5. oinarria. Diruz lagundu daitekeen egitatea/ Base 5. Hecho subvencionable.
6. oinarria. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak/Base 6. Gastos subvencionables.
7. oinarria. Proiektuak gauzatzeko epea eta betekizunak/Base 7. Plazo y requisitos de ejecución.
8. oinarria. Dirulaguntzaren zenbatekoa/Base 8. Cuantía de la subvención.
9. oinarria. Balorazio-irizpideak/Base 9. Criterios de valoración.

II. KAPITULUA. 2. ARLOA: HERRI-ETA GIZARTE-PARTAIDETZAKO PROZESUAK GARATZEA, HERRITARREKIKO HARREMAN DIGITALA SUSTATZEKO/

CAPÍTULO II. ÁREA 2: DESARROLLO DE PROCESOS DE PARTICIPACIÓN CIUDADANA Y SOCIAL PARA





FOMENTAR LA RELACIÓN DIGITAL CON LA CIUDADANÍA.

10. oinarria. Helburuak/Base 10. Objetivos.

11. oinarria. Erakunde onuradunak/Base 11. Entidades beneficiarias.

12. oinarria. Diruz lagundu daitekeen egitatea/Base 12. Hecho subvencionable.

13. oinarria. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak/Base 13. Gastos subvencionables.

14. oinarria. Proiektuak gauzatzeko epea eta betekizunak/Base 14. Plazo y requisitos de ejecución.

15. oinarria. Dirulaguntzaren zenbatekoa/Base 15. Cuantía de la subvención.

16. oinarria. Balorazio-irizpideak/Base 16. Criterios de valoración.

III. KAPITULUA. 3. ARLOA: HERRI- ETA GIZARTE-PARTAIDETZARAKO GUNE ETA ORGANO FORMALAK SORTZEA, BIZIBERRITZEA ETA HOBETZEA/

CAPÍTULO III. ÁREA 3: CREACIÓN, REVITALIZACIÓN Y MEJORA DE ESPACIOS Y ÓRGANOS FORMALES DE PARTICIPACIÓN CIUDADANA Y SOCIAL.

17. oinarria. Helburuak/Base 17. Objetivos.

18. oinarria. Erakunde onuradunak/Base 18. Entidades beneficiarias.

19. oinarria. Diruz lagundu daitekeen egitatea/Base 19. Hecho subvencionable.

20. oinarria. Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak/Base 20. Gastos subvencionables.

21. oinarria. Proiektuak gauzatzeko epea eta betekizunak/Base 21. Plazo y requisitos de ejecución.

22. oinarria. Dirulaguntzaren zenbatekoa/Base 22. Cuantía de la subvención.

23. oinarria. Balorazio-irizpideak/Base 23. Criterios de valoración.

III. TITULUA. DIRULAGUNTZA GUZTIETARAKO XEDAPENAK/TÍTULO III. DISPOSICIONES COMUNES A LAS SUBVENCIONES.

24. oinarria. Eskabideak aurkezteko epea eta aurkeztu behar den dokumentazioa/Base 24. Plazo de presentación de las solicitudes y documentación a presentar.

25. oinarria. Erakunde onuradun guztientzako betekizunak/Base 25. Requisitos comunes de las entidades beneficiarias.

26. oinarria. Araubide juridikoa/Base 26. Régimen jurídico.

27. oinarria. Diruz lagun daitezkeen gastuen irizpide orokorrak/Base 27. Criterios generales de gastos





subvencionables.

28. oinarria. Dirulaguntzarik jasoko ez duten gastuak/Base 28. Gastos no subvencionables.

29. oinarria. Aurrekontu-muga/Base 29. Límite presupuestario.

30. oinarria. Dirulaguntzen bateragarritasuna/Base 30. Compatibilidad de subvenciones.

31. oinarria. Emandako dirulaguntzen publikotasuna/Base 31. Publicidad de la subvención concedida.

32. oinarria. Emandako dirulaguntzaren zabalkundea/Base 32. Difusión de la subvención concedida.

IV. TITULUA. DIRULAGUNTZAK EMATEKO PROZEDURA/TÍTULO IV. PROCEDIMIENTO DE CONCESIÓN DE LAS SUBVENCIONES.

33. oinarria. Dirulaguntza emateko prozedura/Base 33. Procedimiento de concesión.

34. oinarria. Laguntzak emateko prozedura antolatu, aztertu eta ebatziko duten organo eskudunak/Base 34. Órganos competentes para la ordenación, instrucción y resolución del procedimiento de concesión.

35. oinarria. Gastuen doikuntza/Base 35. Ajuste de gastos.

36. oinarria. Ebazpen-epea/Base 36. Plazo de resolución.

37. oinarria. Ebazpenaren edukia eta jakinarazpena/Base 37. Contenido y notificación de la resolución.

38. oinarria. Errekurtsoak/Base 38. Recursos.

39. oinarria. Dirulaguntzari uko egitea/Base 39. Renuncia de la subvención.

40. oinarria. Jakinarazpen elektronikoa/Base 40. Notificación electrónica.

41. oinarria. Dirulaguntza ordaintzea/Base 41. Pago de la subvención.

V. TITULUA. DIRULAGUNTZEN GESTIOA ETA JUSTIFIKAZIOA/TÍTULO V. GESTIÓN Y JUSTIFICACIÓN DE LAS SUBVENCIONES.

42. oinarria. Justifikazio-epea/Base 42. Plazo de justificación.

43. oinarria. Dirulaguntza justifikatzeko behar den dokumentazioa/Base 43. Documentación necesaria para la justificación de la subvención.

44. oinarria. Informazio osagarria eskatzea/Base 44. Requerimiento de información complementaria.

45. oinarria. Gastu-kontratazioaren erregelak/Base 45. Reglas de contratación del gasto.

46. oinarria. Ebazpena aldatzea/Base 46. Modificación de la resolución.

VI. TITULUA - DIRULAGUNTZAK ITZULTZEA ETA ARAU-HAUSTE ADMINISTRATIBOAK/TÍTULO VI.





- hurbiltzea partaidetza-espazioak eta -tresnak kolektivos, comarcas y municipios del Territorio Histórico de Bizkaia.
- c) Partaidetza tresna dinamizatzailea izatea, konponbide, adostasun eta lankidetzak berriak ekarriko dituena Bizkaiko garapen iraunkorrean aurrera egin ahal izateko c) Hacer de la participación un instrumento dinamizador que aporte nuevas soluciones, nuevos consensos y nuevas colaboraciones para avanzar en el desarrollo sostenible de Bizkaia.
- d) Gizarte zibila sektore publikoaren zereginean inplika dadin erraztea, gizarte-kohesioa bultzatuz. d) Facilitar la implicación de la sociedad civil en el quehacer del sector público impulsando con ello la cohesión social.
- e) Ekintza politikoak eta administratiboak eraginkortasun eta legitimitate handiagoa izan dezaten laguntzea. e) Favorecer una mayor eficacia y legitimidad de la acción política y administrativa.
3. Foru-dekretu honetan arautzen diren dirulaguntzak lehia-konkurrentziaren bidez emango dira. 3. El régimen de concesión de las subvenciones reguladas en el presente decreto será el de concurrencia competitiva.
4. Diruz laguntzeko eskatzen diren proiektuak 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra bitartean egin beharko dira (biak barne). 4. Los proyectos que motiven la solicitud de la subvención deberán desarrollarse y ejecutarse en el período comprendido entre el 1 de enero de 2024 y el 31 de diciembre de 2024 (ambos incluidos).
5. Toki-araubidea arautzen duen legeriak ezarritako moduan gauzatuko dira prozesuak. 5. Los procesos se llevarán a cabo en los términos establecidos por la legislación que regula el régimen local.
6. Prozesuek lotura izan beharko dute toki-ekumeneko gaiekin, eta partaidetza-proiektuak sustatzen dituen toki-erakundearen esku egon nahiz haren eskumeneko izan beharko du halako gaien konponbideak. 6. Los procesos deberán estar relacionados con materias de competencia local cuya solución esté en manos o sea competencia de la entidad local promotora de los proyectos de participación.
7. Herritarren eta gizartearen partaidetzarako proiektuak hiru jarduketaren bitartez jarriko dira praktikan: 7. La puesta en práctica de proyectos de participación ciudadana y social se llevará a cabo a través de tres áreas de actuación:
- 1. arloa. — Herri- eta gizarte-partaidetzako prozesuak garatzea proiektuan sarturiko udalerraren eta/edo mankomunitatearen garapen jasangarrirako garrantzitsuak diren
 - Área 1. — Desarrollo de procesos de participación ciudadana y social relevantes para el desarrollo sostenible del municipio y/o





eremuetan.

- 2. arloa. — Herritarrek eta gizarteak parte hartzeko prozesuak garatzea, herritarren eta entitate lokalaren arteko harreman digitala sustatzeko.
- 3. arloa. — Herritarrek eta gizarteak parte hartzeko gune eta organo formalak sortu, biziberritu eta hobetzeko proiektuak.

8. Erakunde onuradun bakoitzeko eskabide bakarra onartuko da izapideak egiteko. Eskabideak, diruz lagundu daitekeen proiektu bat izan beharko du, hiru jardun-arloetako batekoa. Hala ere, aurkeztutako proiektua 2. arlokoa bada, beste bi arloetako diruz lagundu daitekeen bigarren proiektu bat jaso ahal izango da eskabidean.

9. Betekizun horiek betetzen ez dituzten dirulaguntza-eskabideak ezetsi egingo dira

2. oinarria. Aurrekontu-zuzkidura.

Deialdi honetan eman daitezkeen laguntzak 0712/491119/43299 partidaren eta 2020/0042 Herritar-partaidetza proiektu-zenbakiaren kontura emango dira. Guztira, hirurehun mila euro dira (300.000,00 €).

Aurrekontuei buruzko Foru Arau Orokorrari buruzko abenduaren 29ko 5/2006 Foru Arauaren testu bategina onartzen duen abenduaren 3ko 5/2013 Foru Dekretu Arauemailearen 56. artikuluan xedatutakoaren babesean, foru-dekretu hau aurretiaz izapidetzen da, eta, horrenbestez, deialdi honetan ageri den gehieneko zenbatekoa gutxi gorabeherakoa da. Ondorioz, dirulaguntzak emateko, beharrezkoa izango da kreditu egokia eta nahikoa egotea arlo bakoitzeko eskabideak ebatzen direnean.

mancomunidad incluidos en el proyecto.

- Área 2. — Desarrollo de procesos de participación ciudadana y social que tengan como objetivo fomentar la relación digital entre la ciudadanía y la entidad local.
- Área 3. —Proyectos dirigidos a la creación, revitalización y mejora de espacios y órganos formales de participación ciudadana y social.

8. Se admitirá a trámite sólo una solicitud por cada entidad beneficiaria. La solicitud deberá contener un proyecto subvencionable perteneciente a una de las tres áreas de actuación. No obstante, si el proyecto presentado fuera del Área 2, la solicitud podrá contener un segundo proyecto subvencionable de cualquiera de las otras dos áreas.

9. Las solicitudes de subvención que no cumplan estos requisitos serán desestimadas.

Base 2. Dotación presupuestaria.

Las subvenciones que puedan otorgarse en la presente convocatoria se efectuarán con cargo a la partida 0712/491119/43299, número de proyecto 2020/0042 Participación Ciudadana, por un total de trescientos mil euros (300.000,00 euros).

Al amparo de lo establecido en el artículo 56 del Decreto Foral Normativo 5/2013, de 3 de diciembre, por el que se aprueba el texto refundido de la Norma Foral 5/2006, de 29 de diciembre, General Presupuestaria, el presente decreto foral se tramita anticipadamente, por lo cual la cuantía total máxima que figura en esta convocatoria tiene carácter estimado. En consecuencia, se hace constar que la concesión de subvenciones queda condicionada a la existencia de crédito adecuado y suficiente en el momento de la resolución de concesión en cada una de las áreas.





5. oinarria. *Diruz lagundu daitekeen egitatea.*

1. Diruz lagun daitezkeen egitatetzat jotzen dira toki-eskumeneko gaiekin lotura duten prozesuak, baldin eta haien konponbidea partaidetza-proiektuak sustatzen dituen toki-erakundearen esku badaude edo haren eskumeneko badira. Zehazki, honako eremu sektorial hauei dagozkien proiektuak lagunduko dira diruz:

- a) mugikortasun iraunkorra,
- b) autokontsumo eta energia-efizientziari buruz ereduak,
- c) zaintza-ereduak,
- d) zahartze aktiboa,
- e) bakardaderako eta isolatze sozialerako irtenbideak,
- f) haur eta gazteen parte-hartzea sustatzea,
- g) aisialdiko, denbora libreko, nerabezaro eta gazteen arloko politika-ereduak,
- h) emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasuna,
- i) gizarte- eta ingurumen-garapenari loturiko boluntarioritza,
- j) merkataritza eta turismo lokala,
- k) garapen ekonomiko endogenoa,
- l) ekonomia zirkularra,
- m) topaketa komunitarioetarako guneen eredu berriak definitzea (parkeak, plazak, etab.) eta

Base 5. *Hecho subvencionable.*

1. Son hechos subvencionables los procesos relacionados con materias de competencia local cuya solución esté en manos o sea competencia de la entidad local o entidades locales promotoras de los proyectos de participación. En concreto se subvencionarán proyectos correspondientes a los siguientes ámbitos sectoriales:

- a) movilidad sostenible,
- b) modelos de autoconsumo y eficiencia energética,
- c) modelos de cuidados,
- d) envejecimiento activo,
- e) soluciones a la soledad y al aislamiento social,
- f) fomento de la participación infantil y juvenil,
- g) modelos de políticas de ocio, tiempo libre, adolescencia y juventud,
- h) igualdad efectiva entre hombres y mujeres,
- i) voluntariado vinculado al desarrollo social y medioambiental,
- j) comercio y turismo local,
- k) desarrollo económico endógeno,
- l) economía circular,
- m) definición de nuevos modelos de espacios de encuentros comunitarios (parques, plazas, etc.), y





Taula honetan azaltzen da nola:

valoración. Se establece en la siguiente tabla:

Proiektuak lorturiko balorazio tekniko/ Valoración técnica obtenida	Ehuneko/ Porcentaje	Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa (€) /Importe máximo de subvención (€)
30 puntu edo gehiago/ 30 o más puntos	%80/ 80%	12.000
25 eta 29,9 puntu artean/ De 25 a 29,9 puntos	%70/ 70%	10.500
20 eta 24,9 puntu artean/ Entre 20 y 24,9 puntos	%60/ 60%	9.000

9. oinarria. Balorazio-irizpideak.

Base 9. Criterios de valoración.

Taula honetan ezartzen dira proiektuak baloratzeko irizpide espezifikoak:

Los criterios específicos de valoración de los proyectos son los establecidos en la siguiente tabla:

Ebaluazio teknikorako irizpideak/ Criterios de evaluación técnica	Gehieneko puntuazioa/ Puntuación máxima
Proiektua udalerrriaren edo mankomunitatearen errealitatera eta beharretara egokitzea/Adecuación del proyecto a la realidad y necesidades del municipio o mancomunidad	6
Prozesuaren helburuen zehaztasun-maila/ Grado de concreción de los objetivos del proceso	6
Garatu beharreko metodologiaren eta prozesuaren egutegiaren zehaztasun-maila/ Grado de concreción de la metodología a desarrollar y del calendario del proceso	6
Proposaturiko metodologiaren eta prozesuaren helburuen arteko koherentzia/ Coherencia entre la metodología propuesta y los objetivos del proceso	6
Gizarte-bazterketako egoeran eta/edo bazterketarako arriskuan dauden kolektiboek edo normalean partaidetzatik urrunago dauden beste kolektibo batzuei zuzendutako partaidetza-jarduera edo -dinamika espezifikoak sartzea/Inclusión de actividades o dinámicas de participación específicas dirigidas a colectivos en situación de exclusión y/o riesgo de exclusión, u otros colectivos habitualmente más alejados de la participación	4
Proiektua bat dator 2030 Agendarekin eta Garapen Jasangarriaren Helburuekin (GJH)/ Proyecto alineado con la Agenda 2030 y ODS (Objetivos de Desarrollo	4





partaidetza-prozesuak abian jartzen laguntzea. ciudadanía y la administración local.

- | | |
|---|--|
| <p>c) Herritarrek administrazio lokalean duten parte-hartzea zabaltzea, kanal digitalen bitartez.</p> <p>d) Herritarrak administrazioaren kanal digitalen erabileran gaitzen lagunduko duten prestakuntza-prozesuak sustatzea.</p> <p>e) Eten digitala murriztea.</p> | <p>c) Extender la participación de la ciudadanía en la administración local a través de los canales digitales.</p> <p>d) Promover procesos de formación que ayuden a capacitar a la ciudadanía en el uso de los canales digitales de la administración.</p> <p>e) Reducir la brecha digital.</p> |
|---|--|

11. oinarria. *Erakunde onuradunak.*

Base 11. *Entidades beneficiarias.*

Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrri eta mankomunitateak izango dira arlo honen erakunde onuradunak.

Las entidades beneficiarias de esta área serán los municipios y las mancomunidades del Territorio Histórico de Bizkaia.

12. oinarria. *Diruz lagundu daitezkeen egitateak.*

Base 12. *Hecho subvencionable.*

- | | |
|---|--|
| <p>1. Herritarren eta administrazioaren arteko harreman digitala sustatzen laguntzen duten herri-partaidetzako prozesuak dira diruz lagun daitezkeen egitateak.</p> <p>2. Prozesu horiek helburu izan behar dute herritarrek gehiago erabiltzea jada existitzen diren bitartekoak, bai eta baliabide horiek hobetzeko beharizanak eta aukerak identifikatzea eta zerbitzu digital berriak eskatzea ere.</p> <p>3. Halako prozesuetan, bestalde, sar daitezke jada existitzen diren zerbitzu digitalei buruzko herritarrentzako informazio- eta prestakuntza-ekintzak, baldin eta beharrezkoak badira partaidetza-jarduerak errazteko.</p> | <p>1. Son hechos subvencionables los procesos de participación ciudadana que ayuden a fomentar la relación digital entre la ciudadanía y la entidad local.</p> <p>2. Estos procesos deben tener como objetivo conseguir un mayor uso ciudadano de los medios ya existentes, así como identificar necesidades y oportunidades de mejora de los mismos y demanda de nuevos servicios digitales.</p> <p>3. Asimismo, estos procesos podrán incluir acciones de información y formación ciudadana vinculadas con los servicios digitales existentes, siempre que sea necesarias para facilitar las actividades de participación.</p> |
|---|--|

13. oinarria. *Dirulaguntza jaso dezaketen gastuak.*

Base 13. *Gastos subvencionables.*

Honako hauek dira dirulaguntza jaso dezaketen gastuak:

Se consideran gastos subvencionables los siguientes:





- | | |
|---|--|
| 1. Partaidetza-prozesuak diseinatzeko, antolatze eta dinamizatzeko laguntza teknikoaren gastuak. | 1. Gastos de asistencia técnica para el diseño, organización y dinamización de los procesos participativos. |
| 2. Partaidetza-prozesuen garapenari lotutako gastu logistikoak. | 2. Gastos logísticos vinculados al desarrollo de los procesos participativos. |
| 3. Partaidetza-prozesuen komunikazio-gastuak, barnean harturik diseinua, inprimaketa eta erabiltzen diren materialak banatzeko kanalak. | 3. Gastos de comunicación de los procesos participativos, incluido el diseño, la impresión y los canales de distribución de los materiales que se empleen. |
| 4. Partaidetza-prozesua diseinatu aurreko analisi-lanen ondoriozko gastuak. | 4. Gastos derivados de los trabajos de análisis previos al diseño del proceso participativo. |

14. oinarria. *Proiektuak gauatzeko epea eta betekizunak.*

Diruz laguntzeko eskatzen diren proiektuak 2024ko urtarrilaren 1etik 2024ko abenduaren 31ra bitartean garatu eta gauzatu beharko dira (biak barne).

Base 14. *Plazo y requisitos de ejecución.*

Los proyectos que motiven la solicitud de la subvención deberán desarrollarse y ejecutarse en el período comprendido entre el 1 de enero de 2024 y el 31 de diciembre de 2024 (ambos incluidos).

15. oinarria. *Dirulaguntzaren zenbatekoa.*

1. Emango diren laguntzak dirulaguntza itzulgarriak dira, eta 12.000 euro emango dira gehienez aurkeztutako proiektu osorako. Kostu osoaren % 80 lagunduko da diruz gehienez ere, baina 12.000 € izango da muga (BEZik gabe).
2. Dirulaguntzaren zenbatekoa proiektuak lortutako puntuazioaren arabera zehaztuko da. Taula honetan azaltzen da nola:

Base 15. *Cuantía de la subvención.*

1. Las ayudas a conceder son subvenciones reintegrables y su cuantía máxima será de 12.000 euros, por la totalidad del proyecto presentado, subvencionándose hasta un máximo del 80% del coste total con un límite de 12.000€ (IVA excluido).
2. El porcentaje e importe máximo de la subvención se establecerá en función de la puntuación obtenida en aplicación de los criterios de valoración. Se establece en la siguiente tabla:





Proiektuak lorturiko balorazio tekniko/ Valoración técnica obtenida	Ehuneko/ Porcentaje	Dirulaguntzaren gehieneko zenbatekoa/ Importe máximo de subvención (€) (€)
30 puntu edo gehiago/ 30 o más puntos	%80/ 80%	12.000
25 eta 29,9 puntu artean/ De 25 a 29,9 puntos	%70/ 70%	10.500
20 eta 24,9 puntu artean/ Entre 20 y 24,9 puntos	%60/ 60%	9.000

16. oinarria. Balorazio-irizpideak.

Base 16. Criterios de valoración.

Taula honetan ezartzen dira proiektuak baloratzeko irizpide espezifikoak:

Los criterios específicos de valoración de los proyectos son los establecidos en la siguiente tabla:

Ebaluazio teknikorako irizpideak/ Criterios de evaluación técnica	Gehieneko puntuazioa/ Puntuación máxima
Proiektua udalerraren edo mankomunitatearen errealitatera eta beharretara egokitzea/ Adecuación del proyecto a la realidad y necesidades del municipio o mancomunidad	6
Prozesuaren helburuen zehaztasun-maila/ Grado de concreción de los objetivos del proceso	6
Garatu beharreko metodologiaren eta prozesuaren egutegiaren zehaztasun-maila/ Grado de concreción de la metodología a desarrollar y del calendario del proceso	6
Proposaturiko metodologiaren eta prozesuaren helburuen arteko koherentzia/ Coherencia entre la metodología propuesta y los objetivos del proceso	6





Gizarte-bazterketako egoeran eta/edo bazterketarako arriskuan dauden kolektiboei edo normalean partaidetzatik urrunago dauden beste kolektibo batzuei zuzendutako partaidetza-jarduera edo -dinamika espezifikoak sartzea/Inclusión de actividades o dinámicas de participación específicas dirigidas a colectivos en situación de exclusión y/o riesgo de exclusión, u otros colectivos habitualmente más alejados de la participación	4
Proiektua bat dator 2030 Agendarekin eta Garapen Jasangarriaren Helburuekin (GJH)/ Proyecto alineado con la Agenda 2030 y ODS (Objetivos de Desarrollo Sostenible)	4
Aurreikusitako emaitzak itzultzeko dinamikak / Dinámicas de devolución de resultados previstas	4
Aurreikusitako emaitzak ebaluatzeko dinamikak / Dinámicas de evaluación previstas	4
GUZTIRA/TOTAL	40

20 puntu edo gehiago lortu dituzten proiektuak bakarrik joko dira diruz laguntzekotzat.

Sólo se considerarán subvencionables los proyectos que hayan obtenido una puntuación igual o superior a 20 puntos.

Lehentasun-ordenaren arabera hautatuko dira proiektuak, lortzen duten balorazio teknikoaren arabera.

Los proyectos serán seleccionados en orden de prioridad de acuerdo con la valoración técnica obtenida.

III. KAPITULUA

CAPÍTULO III

3. arloa: herri- eta gizarte-partaidetzarako gune eta organo formalak sortzea, biziberritzea eta hobetzea

Área 3: creación, revitalización y mejora de espacios y órganos formales de participación ciudadana y social

17. oinarria. *Helburuak.*

Base 17. *Objetivos.*

Jarduketa-arlo honen helburua da diruz laguntzea herri- eta gizarte-partaidetzarako gune eta organo formalak sortzera, biziberritzera eta hobetzera bideratutako proiektuak.

El objetivo de esta área de actuación es subvencionar proyectos dirigidos a la creación, revitalización y mejora de espacios y órganos formales de participación ciudadana y social.

Hirugarren arlo honen bidez, helburu hauek lortu nahi dira:

Mediante esta área 3 se pretende alcanzar los siguientes objetivos:

- a) Herri- eta gizarte-partaidetzarako gune eta organo formalak sortzen laguntzea, tokiko

- a) Facilitar la creación de espacios y órganos formales de participación ciudadana y social en





eskumen- eta interes-eremu lokalen inguruan.

torno a ámbitos de competencia e interés local.

- b) Herritarrek eta gizarteak parte hartzeko dauden gune eta organo formalen analisia erraztea, hobetu beharreko alderdiak antzeman eta inplementatzeko.
- c) Herri- eta gizarte-partaidetzarako gune eta organo egonkorren biziberritzea eta dinamizazioa erraztea, ezarri zitzaizkien helburuetarako baliagarri izan daitezen.
- d) Herritarrek administrazio lokalean duten parte-hartzea zabaltzea, herri- eta gizarte-partaidetzarako gune eta organo egonkorren bidez.

- b) Facilitar el análisis de los espacios y órganos formales de participación ciudadana y social ya existentes al objeto de detectar e implementar los aspectos de mejora.
- c) Facilitar la revitalización y dinamización de los espacios y órganos estables de participación ciudadana y social buscando que sirvan a los objetivos para los que fueron creados.
- d) Extender la participación de la ciudadanía en la administración local a través de los espacios y órganos estables de participación ciudadana y social.

Dekretu honen ondorioetarako, herri- eta gizarte-partaidetzarako gune edo organo formalak dira esparru edo gai baten inguruan sortutako partaidetzaforo edo -bide egonkorrak, modua ematen dutenak administrazioak eta herritarrek elkarri entzuteko eta eragiteko. Adibidez: Adinekoen Kontseilua, Emakumearen Kontseilua, Gazteriaren Kontseilua, eta abar.

A efectos de este decreto, son espacios u órganos formales de participación ciudadana y social, los foros o cauces estables de participación creados en torno a un ámbito o materia, que permiten la escucha y la interacción entre la administración y la ciudadanía. Por ejemplo: Consejo de Personas Mayores, Consejo de la Mujer, Consejo de la Juventud, etc.

18. oinarria. *Erakunde onuradunak.*

Base 18. *Entidades beneficiarias.*

Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrri eta mankomunitateak izango dira arlo honen erakunde onuradunak.

Las entidades beneficiarias de esta área serán los municipios y las mancomunidades del Territorio Histórico de Bizkaia.

19. oinarria. *Diruz lagundu daitezkeen egitateak.*

Base 19. *Hecho subvencionable.*

1. Herri- eta gizarte-partaidetzarako gune eta organo formalak sortu, biziberritu eta hobetzeko proiektuak dira diruz lagun daitezkeen egitateak. Zehazki, honako helburu hauek dituzten proiektuak lagunduko dira diruz:

1. Son hechos subvencionables los proyectos dirigidos a la creación, revitalización y mejora de espacios y órganos formales de participación ciudadana y social. En concreto se subvencionarán proyectos que tengan como objeto:

- a) Udalaren eskumen- eta lehentasun-eremu batean parte hartzeko gune edo organo formalak sortzea, ez dagoenean

- a) La creación del espacio u órgano formal de participación en un ámbito de competencia y prioridad municipal,





eremu jakin horretan organo edo espazio formalik.

- b) Jada existitzen diren herri-eta gizarte-partaidetzarako gune eta organo formalak biziberritzea eta hobetzea, baldin eta suspertzea behar badute sortu zireneko helburuei erantzun eraginkorra eman ahal izateko.

cuando no exista un órgano o espacio de carácter formal en dicho ámbito temático.

- b) La revitalización y mejora de espacios y órganos formales de participación ciudadana y social ya existentes, pero que precisen de una activación para que puedan dar una respuesta efectiva a los objetivos para los que fueron creados.

2. Baterako zein besterako, analisi-prozesu bat garatu beharko da, partaidetza-dinamikak izango dituen eta aukera emango duena hurrengo urteetarako ikuspegi estrategikoa, lan-dinamikak eta lanerako plana definitzeko nahiz birdefinitzeko. Era berean, proiektuak barne hartu ahal izango du hasierako laguntza espezializatua, kanpoko erakunde edo enpresa batena, kasuan kasuko gune edo organoak nahi den funtzionamendua lortu arte.

